

PRENTSA-OHARRA

Alde Zaharra oinezkoentzako bihurtzeko proiektuaren prozesu partizipatiboaren 2. fasea irailetik aurrera egingen da, herritarren proposamenak jasotzearekin batera

Bihar hasiko da ‘Lo Viejo se mueve - Alde Zaharra arian-arian’ ekimena, 10:30ean, zamalanekin loturiko arazoak aztertzeko hiri-bisitaldiarekin.

Irailaren 1etik 30era bitartean gauzatuko da Alde Zaharreko mugikortasunari buruzko ‘Lo Viejo se mueve - Alde Zaharra arian-arian’ prozesu partizipatibo ez loteslearen bigarren fasea, zeinean herritarren proposamenak jasoko diren. Prozesuak parte hartzeko dinamikak izango ditu; esaterako, bihar bertan, irailaren 2an, eta *Urratsez urrats* izenpean, 10:30ean San Zernin eta San Nikolas burgetan zehar egingo den hiri-bisitaldia (kale Nagusiaren 34. zenbakitik hasita), Alde Zaharrean zamalanen inguruan sortzen diren arazoak eta auziak hautemateko asmoz. Hitzordua irekita dago parte nahi duen ororentzako; 10:30ean hasiko da, eta izanen da aurrerago antzeko beste jarduera bat, irailaren 29ko 19:30ean, San Nikolas plazan hasiko dena. Halaber, informazio-mahaiak, haurrentako lantegi eta kale-egintza bana antolatu dira.

Ekimenaren xehetasun guztiak aurkeztu ditu gaur goizean prentsaurrekoan Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko zinegotzi ordezkari Alberto Labargak, Alorreko zuzendari Axel Morenok eta prozesua sustatu duen AZ Ekimeneko ordezkari Txutxin Armengolek eta Fernando Villanuevak. AZ Ekimena auzoko bizilagunek osatutako entitatea da, eta merkataritzaren eta ostalaritzaren zenbait ordezkariarekin eta Udalarekin batera prozesua sustatu duen talde eragilea osatu izan du.

Prozesu partizipatiboaren bigarren fase honetan jasotzen diren herritarren proposamenak udal teknikariek osaturiko diziplinarteko taldera zuzenduko dira, eta horiek zehaztuko dute, finean, Udalaren erabaki-organoei aurkeztuko zaien proposamena. Herritarren Segurtasuneko, Tokiko Ekonomia Jasangarriko, Partaidetzako, Mugikortasuneko eta Hiri Jasangarriko teknikariek osatuko dute talde hori.

Auto, zarata eta kutsadura gutxiago, eta oinezko, bizikleta eta garraio publiko gehiago
Herritarrek proposamenak egin ahalko dituzte lau gai hauen inguruan: oinezkoei lehenetsuna ematea eta ibilgailu motordunen zirkulazioa murriztea; auzora sartzeko eta bertan mugitzeko erraztasunak, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarriko irizpideak kontuan hartuta (garraio publikoa, aparkalekuak, etab.); zamalanak arautzea, aintzat hartuta merkataria, bizilagunak eta entitateak; eta oinezkoen eta txirrindularien arteko elkarbizitza.

1. orrialdea, 3(e)tik



Alberto Labarga zinegotziak 'Lo Viejo se mueve - Alde Zaharra arian-arian' prozesuaren helburua hiri-eredua hobetzea dela azaldu du: turismoen presentzia mugatzea, zarata-bolumena eta kutsadura-tasak murriztea, garraio publikoaren erabilera bultzatzea, bizikletaz ibiltzeko gune seguruen sorrera sustatzea, oinezkoentzako gune berriak sortzea, eta txirrindulari eta oinezkoen arteko bizikidetzaz erraztea.

Prozesu partizipatibo hau aholkuak ematekoa eta proposamenak egitekoa da, baina ez da loteslea; hau da, herritarren inplikazioa bilatzen du berau definitzeko eta proposamenak egiteko faseetan, baina ez erabakiak hartzekoan, zeregin hori –legearekin bat– Udalaren gobernu-organoei baitagokie. Horiek, teknikarien proposamen formalari jarraiki jokatu behar dute.

Nola egin ekarpenak

Bi bide prestatu dira herritarren ekarpenak jasotzeko, webgune bidezkoa eta aurrez aurrekoa hiriko zenbait lekutan. Prozesuaren webguneak bi bertsio ditu: www.loviejoosemueve.net (gaztelaniaz) eta www.arianarian.net (euskaraz). Horrez gain, triptikoak eskainiko zaizkie herritarrei zenbait lekutan: Alde Zaharreko osasun-zentroan, San Domingoko merkatuan, Kondestablearen jauregian, San Frantzisko eta Santo Tomás (Domingotarrak) ikastetxeetan eta prozesuaren logotipoa duten auzoko hainbat saltokitan.

Ekarpenak irailean zehar gauzatuko diren kale-dinamiketan ere aurkeztu ahal izango dira. Bihar, irailaren 2an, goizez, horietako bat eginen da, zamalaren funtzionamenduari buruz, eta hilaren 16an beste bat, haurrentzako lantegi bat *Txikien begietan* izenpean, San Frantzisko plazan 17:00etan hasiko dena. Irailaren 17an *Mugitzen, bidea eskatzen* izeneko kale-egintza eginen da Mercaderes kalean, 12:00etan. Azkenik, beste hiri-bisitaldi bat eginen da irailaren 29ko 19:30ean, San Nikolas plazan hasita.

Horiez gain, informazio-mahaiak antolatu dira irailaren 3an, 8an eta 15ean egiteko. Lehena San Domingoko merkatuan eginen da, 12:00etan; irailaren 8koa San Frantzisko plazan, baita ere 12.00etan; eta 15koa 19:30ean izanen da, Mercaderes kalean.

Bost fasetako prozesua

Gaur aurkezten den fasea bigarrena da bosten artean, eta prozesua 2017ko hasieran amaituko da, Alde Zaharreko mugikortasun eredu berria definitzeko duten neurriak modu esperimentalean abiaraztearekin batera. Lehen fasea azken ikasturtearen amaieran gauzatu zen; bertan, eta hainbat saiotan, zenbait elkarte, kolektibo, eragile ekonomiko eta Udaleko kide bildu ziren, eta prozesua bera definitu eta diseinatu zuten, bai eta lan-irizpideak zedarritu ere.

Behin oraingo fasea amaituta, hirugarrenaren txanda izanen da, akordioak adosteko eta ildo estrategikoak diseinatzeko txanda, urrian egitekoa. Fase horretan jardunaldiak antolatuko dira, interes-taldeei gonbidatuta: bizilagunei, kontsumitzaileei, garraiolariari, administrazio publikoari, desgaitasunen bat duten pertsonari, taxistei, talde sozialei, oinezkoari, txirrindulariari, talde ekologisteari, turismo- eta ostalaritza-enpresei.





Laugarren fasean Udalaren proposamen teknikoaren txanda izanen da: hari dagokio prozesutik eratorritako ondorioak baloratzea eta proposamenak antolatzea epe labur eta ertainean duten lehenetasunaren arabera. Aurreikuspenen arabera, lan horiek azarotik urtarrilera bitarte egingen dira. Bosgarren fasean proposamen berriak modu experimental eta itzulgarrian abiaraziko dira, aurreikuspenen arabera otsailean eta martxoan zehar.

PROZESU PARTIZIPATIBOA: LO VIEJO SE MUEVE - ALDE ZAHARRA ARIAN-ARIAN

- **Herritarren ekarpenak**

- Irailaren 1etik 30era bitartean
- Webgunean: www.loviejosemueve.net (gaztelaniaz) eta www.arianarian.net (euskaraz)
- Aurrez aurre, Alde Zaharreko osasun-zentroan, San Domingoko merkatuan, Kondestablearen jauregian, San Frantzisko eta Santo Tomás (Domingotarrak) ikastetxeetan eta prozesuaren logotipoa duten auzoko hainbat saltokitan.

- **Parte hartzeko dinamikak**

- Irailak 2. 10:30. Kale Nagusia, 34 Hiri-bisitaldia. *Iruña, urratsez urrats*
- Irailak 16. 17:00. San Frantzisko plaza. Haurrentako lantegia. *Txikien begietan*
- Irailak 17. 12:00. Mercaderes kalea. Kale-egintza. *Mugitzen, bidea eskatzen*
- Irailak 29. 19:30. San Nikolas plaza. Hiri-bisitaldia. *Iruña, urratsez urrats*

- **Informazio-mahaiak**

- Irailak 3. 12:00. San Domingoko merkatua.
- Irailak 8. 12:00. San Frantzisko plaza.
- Irailak 15. 19:30. Mercaderes kalea.

Iruñean, 2016ko irailaren 1ean. 2016

